

- Bio-hondakinak ezin dira plastikozko poltsetan edo poltsarik gabe bota, poltsa konpostagarrietan bota behar dira. Horiek, kiroldegian jarri zen makinan eskuratu daitezke.
- Landa eremuko ekarpen guneak irekitzeko zer egin behar dut? Txartela udaletxean konfiguratu.
- Beirazko poto eta botiletan plastikozko tapa edo kortxo bereizi behar da.
- Ezin da papera eta kartoia plastikozko poltsetan bota edukiontzi urdinera.
- Errefusara bota behar diren plastikoak: fregonaren kuboak, hortzetako eskuila eta tupperra.
- Errefusara ere hautsitako edalontzi eta kopak, plater eta katiluak eta ispilu eta leihoetako kristalak bota behar dira.
- Edukiontzi horira bota daitezke plastikozko eta metalezko ontziak eta brikak.
- Janariarekin zikindutako sukaldeko papera eta mukizapiak organikora bota behar dira, nahiz eta produktu kimikoz, margoz edo disolbentez zikinduta daudenak errefusara bota behar diren. Bestalde, kafe hondarrak eta te poltsak edukiontzi marroian doaz.
- Harategiko edo arrandegiko papera: papera eta plastikoa banandu eta bakoitza dagokion edukiontzian sailkatu. Guztiz paperezkoa den kasuetan, eta zikina badago, edukiontzi marroira. Plastikozkoa izatekotan, horira.
- Altzari berriek dakarten poliespana edukiontzi horira bota daiteke? Garbigunera eraman behar da, nahiz eta kantitate txikia den kasuetan, txikitu eta edukiontzi horira ere bota daitekeen.
- Kafe kapsulei barruko kafe-hutsa atera eta kondarrak organikora eta kapsula edukiontzi horira bota behar dira. Bestela, osorik errefusara.
- Erabilitako olio ongi itxitako plastikozko ontzietan bota behar da dagokion edukiontzira. Beirazko potoak ez dira erabili behar hautsi egiten direlako.
- Egoera txarrean edo zulatuta dauden arropak, jantzi-osagarriak zein oinetakoak edukiontzi txurira (ehuna) bota behar dira.
- Marrubien egurrezko kaxak Garbigunera eraman behar dira.
- Obrako hondakinak ezin dira kaleko edukiontzietan bota. Etxeko obra txikiren batekoak badira garbigunera eraman daitezke. Bestela, zerbitzu berezi bat kontratatu behar da hondakinen kudeaketarako.
- Sendagaien ontziak, hutsak egon arren, SIGRE puntuan bota behar dira; baita ere horiekin kontaktuan egon diren beste kaxak. Horiek farmazietan kokatuta daude.
- Zartagin zein lapikoak ezin dira errefusara bota, garbigunera eraman behar dira.